



# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua ekoizi ahal izateko app bat eta txipak behar ditugu.

Txipei dagokienez, 2 txip mota beharko ditugu, hau da, giltzapeko txipak eta txip normalak eta hauek guztiak AliExpress dendari erosiko dizkiogu. Gainera, txip bakoitzaren funtzionamendua kontuan hartuz, hauek izkutatzeko mekanismo ezberdinak erabiliko ditugunez, mugikorrenzako, haririk gabeko kaskoentzako, kargagailuentzako... fundak erosiko dizkiogu Aliexpresseri ere, horrela hauengatik nolabaiteko beherapena lortzeko.

Bestetik, txip normalentzako ere funda ezberdinak behar ditugunez, hauek modu eroso eta deigarrian eramateko Amonen elkarte deituriko jostunen elkarte bati ordainduko diogu.

Giltzapeko txipak	Txip normalak
Motxilak	Kableak
Diru-zorroa	Mugikorreko fundak
Giltzak	Kaskoentzako fundak
Berokiak	

Garraioaren aldetik, Langarri enpresarekin akordio bat sinatuko dugu, horrela hauek gure produktuak salmenta puntuetara garraiatzeko.

Lokalaren garbiketari dagokionez, Bizkaiko Areeta enpresarekin hitz egin eta garbitzaile bat bidaltzea eskatuko dugu, horrela honek lokala garbitu eta txukundu dezan.

Are gehiago, App-a eta webgunearen diseinu eta sorkuntzaz arduratzeko, Vanadis enpresa kontratatuko dugu, gaian espezialista dena.

Bestetik, hainbat enpresekin aliantzak sortuko ditugu, horrela hauek gure produktuak bere dendetan sal ditzaten. Enpresa horiek informatika arloa dutenak izango dira, hala nola; MediaMarkt, Eroski, Carrefour, Fnac... Hauek irabazien %20 jasoko dute, gure produktua haien dendetan saltzearen truke, eta gainera zerbait behar izatekotan, hau da, kartelak, produktuen ale gehiago...eskatu besterik egin behar dute, horrela guk hornitzeko.



